Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Igualmente, no se valorará la formación efectuada con posterioridad a la fecha indicada, entendiéndose por tal la fecha de emisión del título o resguardo provisional equivalente.

Era berean, ez da baloratuko aipatutako dataren ondoren egindako prestakuntza, honakotzat hartuz titulua edo behin - behineko frogagiri baliokidea eman den eguna.

En ningún caso el Tribunal dará por supuesta la concurrencia de un mérito que no haya sido alegado o que no haya sido acreditado documentalmente, ni podrá otorgar por cada uno de los apartados puntuación superior a la señalada.

Epaimahaiak ez du inolaz ere onartuko edota baloratuko alegatu ez den edo agiri bidez egiaztatu ez den merezimendurik. Era berean, ezingo du atal bakoitzean oinarri hauen arabera dagokiona baino puntuazio handiagoa eman.

Conforme a lo señalado en el apartado 3.3.f) los méritos alegados se puntuarán y acreditarán de la siguiente forma:

3.3.f) atalean adierazitakoaren arabera, alegatutako merezimenduak honela puntuatu eta egiaztatuko dira:

7.1.1.- <u>Experiencia: 10 puntos máximo.</u>

7.1.1.- <u>Esperientzia: 10 puntu, gehienez ere.</u>

a) Por servicios prestados en una entidad local, otra administración pública o empresas públicas pertenecientes a entidades locales, en la categoría de oficial de administración: 3 puntos por año trabajado.

a) Toki - erakunde batean, beste administrazio publiko batean edo toki-erakundeetako enpresa publikoetan emandako zerbitzuak, administrazioko ofizialaren kategorian: 3 puntu lan egindako urte bakoitzeko.

b) Por servicios prestados en una empresa privada, en la categoría de oficial de administración: 1'5 puntos por año trabajado.

b) Enpresa pribatu batean emandako zerbitzuengatik, administrazioko ofizialaren kategorian: 1,5 puntu lan egindako urte bakoitzeko.

**<u>Notas:</u>**

**<u>Oharrak:</u>**

1ª Si el número de años no fuese entero, se asignará la puntuación que proporcionalmente corresponda al período en que se hayan prestado servicios.

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen da.

2ª Se valorarán los servicios prestados desde la fecha de inicio de cada prestación de servicios hasta su finalización, con independencia del porcentaje de jornada realizado.

2. Zerbitzu - emate bakoitza hasten denetik amaitzen den arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.

3ª Los periodos en los que la persona aspirante haya estado en situación de servicios especiales se computarán como servicios prestados en el puesto de trabajo efectivamente desempeñado, a excepción de la excedencia especial por cuidado, que computará como servicios prestados en el

3. Izangaia zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan bete duen lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala zenbatuko dira, zaintzagatiko eszedentzia berezia izan ezik, egoera horretan sartzeko unean zeukan lanpostuan emandako zerbitzu gisa zenbatuko baita.

puesto de trabajo que tuviera en el momento de acceso a dicha situación.

4ª Serán incompatibles las puntuaciones otorgadas por los anteriores subapartados cuando se refieran al mismo periodo, otorgándose en cada caso la superior de ellas.

4. Aurreko azpiataletan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

5ª Los servicios prestados se acreditarán mediante certificados de la entidad contratante o contratos de trabajo, acompañados de la Vida Laboral, en los que conste claramente el puesto, la categoría y la fecha de inicio y fin de la relación laboral.

5. Emandako zerbitzuak erakunde kontratatzailearen ziurtagirien edo lan - kontratuen bidez egiaztatuko dira, lan - bizitza agiriaz lagunduta aurkeztuko direnak. Dokumentu horietan argi eta garbi adieraziko dira lanpostua, kategoria eta lan-harremanaren hasiera- eta amaiera-data.

7.1.2.- Formación académica: 10 puntos máximo.

7.1.2. Prestakuntza akademikoa: 10 puntu, gehienez ere.

Se valorarán los estudios y la formación en materias estrechamente relacionadas con las funciones del puesto de trabajo a desempeñar, cuyos títulos o certificados deberán ser emitidos por organismos oficiales y/o colegios profesionales, centros públicos y universidades.

Bete beharreko lanpostuaren eginkizunekin lotura estua duten gaiei buruzko ikasketak eta ikastaroak baloratuko dira. Ikasketa horien tituluak edo ziurtagiriak erakunde ofizialek eta/edo elkargo profesionalek, zentro publikoek eta unibertsitateek emandakoak izan beharko dute.

a) Por estar en posesión de títulos universitarios de un mínimo de 60 créditos ECTS o de Formación Profesional cuyo plan de estudios sea de dos o más cursos escolares: 3 puntos por título.

a) Gutxienez 60 ECTS kredituko unibertsitate-titulua edo bi ikasturteko edo gehiagoko ikasketa - plana duen Lanbide Heziketako titulua edukitzeagatik: 3 puntu titulu bakoitzeko.

b) Por estar en posesión de títulos universitarios de hasta 59 créditos ECTS o de Formación Profesional cuyo plan de estudios sea de menos de dos cursos: 2 puntos por título.

b) 59 ECTS kreditu bitarteko unibertsitate - tituluak edo Lanbide Heziketako tituluak izateagatik, horien ikasketa - planak bi ikasturte baino gutxiago baditu: 2 puntu titulu bakoitzeko.

c) Por haber realizado cursos estrictamente relacionados con el puesto de trabajo a ocupar, objeto de la convocatoria, con las aplicaciones informáticas generales (Office, Word, Excel, creación y/o mantenimiento de páginas web), con las aplicaciones informáticas específicas de entidades locales (sede electrónica, expediente electrónico, mantenimientos generales y similares) y otros similares a valorar por el tribunal:

- Cursos de 300 horas o más: 1’5 puntos.
- Cursos entre 200 y 299 horas: 1’2 punto.
- Cursos entre 100 y 199 horas: 0’9 puntos.

c) Bete beharreko lanpostuarekin hertsiki lotutako gaiei buruzko ikastaroak, aplikazio informatiko orokorrei buruzkoak (Office, Word, Excel, web-orriak sortzea eta/edo mantentzea), toki erakundeen aplikazio informatiko espezifikoei buruzkoak (egoitza elektronikoa, espediente elektronikoa, mantenu orokorra eta antzekoak) eta epaimahaiak baloratu beharreko antzeko beste batzuekin hertsiki lotutakoengatik:

- 300 ordu edo gehiagoko ikastaroak: 1’5 puntu.
- 200 eta 299 ordu bitarteko ikastaroak: 1’2 puntu.
- 100 eta 199 ordu bitarteko ikastaroak: 0,9 puntu.

- Cursos entre 56 y 99 horas: 0’6 puntos.
- Cursos entre 15 y 55 horas: 0’3 puntos.
- Cursos entre 5 y 15 horas: 0’1 puntos.

No se valorarán los cursos de duración inferior a 5 horas, ni aquellos en los que no conste su duración.

d) Por estar en posesión del título de euskera, nivel C1 (escrito y hablado) del Marco Común Europeo, EGA o equivalente: 2 puntos.

El Tribunal podrá, en cualquier momento, solicitar aclaraciones y datos complementarios sobre los méritos alegados por las personas aspirantes.

En caso de que un mismo título pueda valorarse en más de un apartado, únicamente se valorará en aquel que le otorgue mayor puntuación a la persona aspirante.

No se valorará la titulación que dé acceso a la participación en la convocatoria.

Al término de la fase de concurso, el tribunal hará pública en la página web y en el tablón de anuncios de la Mancomunidad de Valdizarbe la puntuación obtenida por cada una de las personas que hayan participado en ella, y abrirá un plazo de 5 días hábiles para que puedan presentar las alegaciones que estimen oportunas. En dicho anuncio se indicará la fecha, lugar y hora del comienzo de los ejercicios de la oposición.

**7.2.- Fase de oposición: 80 puntos máximo.**

La fase de oposición constará de dos ejercicios. Quedarán eliminadas las personas aspirantes que no alcancen, al menos, 30 puntos en el total de esta fase.

La oposición constará de las siguientes pruebas y ejercicios:

7.2.1. Primer ejercicio: Prueba teórica, 40 puntos máximo.

- 56 eta 99 ordu bitarteko ikastaroak: 0,6 puntu.
- 15 eta 55 ordu bitarteko ikastaroak: 0,3 puntu.
- 5 eta 15 ordu bitarteko ikastaroak: 0,1 puntu.

Ez dira baloratuko 5 ordutik beherako iraupena duten ikastaroak, ezta iraupena jasota ez dutenak ere.

d) Europako Esparru Bateratuko, C1 mailako (idatzia eta ahozkoa) euskara-titulua, EGAko edo baliokidea izateagatik: 2 puntu.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu izangaiek alegatutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak.

Titulu bat atal batean baino gehiagotan balora badaiteke, izangaiari puntuazio handiena ematen dion atalean bakarrik baloratuko da.

Ez da baloratuko izangaiari deialdian parte hartzeko aukera ematen dion titulazioa.

Lehiaketa - fasea amaitzean, epaimahaiak Izarbeibarko Mankomunitatearen webgunean eta iragarki - oholean argitaratuko du parte hartu duen pertsona bakoitzak lortutako puntuazioa, eta 5 egun balioduneko epea irekiko du egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko. Iragarki horretan, oposizio - ariketak hasteko eguna, tokia eta ordua adieraziko dira.

**7.2.- Oposizio-fasea: Gehienez ere, 80 puntu.**

Oposizio faseak bi ariketa izango ditu. Fase honetan, gutxienez, 30 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertu egingo dira.

Oposizioak honako proba eta ariketa hauek izango ditu:

7.2.1. Lehenengo ariketa: Proba teorikoa, 40 puntu, gehienez.

Consistirá en contestar por escrito a una serie de preguntas tipo test, que versarán sobre las materias del temario detallado en el Anexo II. Todas las materias se exigirán conforme a la normativa vigente a la fecha de publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra.

Todas las preguntas del cuestionario tendrán cuatro alternativas de respuesta, de las cuales una sola será correcta. En caso de que más de una alternativa pueda considerarse correcta, se tomará como válida aquella que abarque de manera más completa la respuesta correcta.

Todas las preguntas tendrán la misma valoración y las respuestas contestadas erróneamente tendrán una penalización de un cuarto del valor de la pregunta.

Test moduko galdera - sorta bat erantzun beharko da idatziz, eta II. eranskinean zehaztutako gai-zerrendako gaiei buruzkoak izango dira. Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiaren arabera eskatuko dira gai guztiak.

Galdetegiko galdera guztiek lau erantzun - aukera izango dituzte, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena. Aukera bat baino gehiago zuzena izan badaiteke, zuzena den erantzun osoena jasotzen duen alternatiba hartuko da baliozko bezala.

Galdera guztiek balorazio bera izango dute, eta oker erantzundako erantzunek galderaren balioaren laurden bateko penalizazioa izango dute.

7.2.2.- Segundo ejercicio: Prueba práctica, 40 puntos máximo.

Consistirá en la resolución de uno o más supuestos prácticos sobre alguno de los temas señalados en el anexo II.

7.2.2.- Bigarren ariketa: Proba praktikoa, 40 puntu, gehienez.

II. eranskinean adierazitako gairen bati buruzko kasu praktiko bat edo gehiago ebatzi beharko dira.

**Notas:**

1ª El tiempo máximo que dispondrán las personas aspirantes para la realización de cada ejercicio será el que fije el Tribunal antes de su comienzo.

2ª En la realización de las pruebas no se permitirá la consulta de ningún texto, ni el uso de máquinas calculadoras u otro material, salvo bolígrafo, de tinta azul o negra.

3ª El sistema a utilizar será el de plicas cerradas. Terminada la corrección de cada ejercicio, el tribunal calificador procederá a la publicación en la página web y en el tablón de anuncios de la Mancomunidad de Valdizarbe de la lista con las calificaciones obtenidas, indicándose así mismo el día y hora de apertura pública de las plicas.

4ª Concluida la calificación de cada prueba, el tribunal calificador procederá a la publicación en la página web y en el tablón de anuncios de la

**Oharrak:**

1. Izangaiek ariketa bakoitza egiteko izango duten gehienezko denbora epaimahaiak ariketa hasi aurretik ezarritakoa izango da.

2. Probak egiteko, ezin izango da testurik kontsultatu, ez eta kalkulagailurik edo bestelako materialik erabili ere, tinta urdin edo beltzeko boligrafoa izan ezik.

3. Erabiliko den sistema plika itxiena izango da. Ariketa bakoitzaren zuzenketa amaitu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak Izarbeibarko Mankomunitatearen webgunean eta iragarki - oholean argitaratuko du lortutako kalifikazioen zerrenda, eta plikak jendaurrean irekitzeko eguna eta ordua ere adieraziko ditu.

4. Proba bakoitzaren kalifikazioa amaitutakoan, epaimahai kalifikatzaileak izangaiek lortutako puntuazioak argitaratuko ditu Izarbeibarko

Mancomunidad de Valdizarbe las puntuaciones obtenidas por las personas aspirantes y abrirá un plazo de cinco días hábiles, para que las personas interesadas puedan alegar, de forma telemática, lo que a su derecho convenga.

Mankomunitatearen webgunean eta iragarki - oholean, eta bost egun baliodunеko epea irekiko du, interesdunek egoki deritzotena telematikoki alegatu ahal izan dezaten.

5ª Durante el desarrollo de la oposición, se establecerán posibles adaptaciones de tiempo y recursos para las personas con discapacidad con discapacidad o divergencia que así lo hayan solicitado en la instancia.

5. Oposizioa garatzen den bitartean, hala eskatzen duten pertsona desgaituentzat edo dibergenteentzat eskabidean adierazitakoaren arabera, hura gauzatzeko denbora- eta baliabide-egokitzapen posibleak ezarriko dira.

**Base 8.- RELACIÓN DE PERSONAS APROBADAS, PROPUESTA DE NOMBRAMIENTO Y PRESENTACIÓN DE DOCUMENTOS.**

**8. oinarria.- GAINDITUEN ZERRENDA, IZENDAPEN – PROPOSAMENA ETA DOKUMENTUAK AURKEZTEA.**

8.1.- Terminada la calificación, el Tribunal publicará en el tablón de anuncios y en la web de la Mancomunidad de Valdizarbe la relación de personas aprobadas con las calificaciones obtenidas y el orden de puntuación correlativa con el que se conformará la bolsa de sustitución.

8.1.- Kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Izarbeibarko Mankomunitatearen iragarki - oholean eta webgunean argitaratuko ditu lortutako kalifikazioekin gaindititako pertsonen zerrenda eta ordezpen - poltsa osatuko duen puntuazio - hurrenkera korrelatiboa.

La calificación final será la resultante de la suma de las puntuaciones de la fase de oposición y del concurso.

Azken kalifikazioa oposizio- faseko eta lehiaketa - faseko puntuazioen batuketaren emaitza izango da.

En caso de empate, se resolverá a favor de las personas aspirantes que mayor puntuación hubieran obtenido, dentro de la fase de oposición, en la primera prueba. De persistir el empate, se dirimirá por sorteo público.

Berdinketa gertatuz gero, oposizio-fasean lehenengo proban puntuazio handiena lortu duten izangaien alde ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa publiko bidez ebatziko da.

8.2.- El Tribunal hará propuesta de nombramiento de la persona que haya obtenido mayor puntuación total. Esta propuesta se publicará en el tablón de anuncios, en la ficha web de la convocatoria y en el Boletín Oficial de Navarra.

8.2.- Epaimahaiak osotara puntuazio handiena lortu duen pertsona izendatzeko proposamena egingo du. Proposamen hori mankomunitatearen oholean, deialdiaren web - fitxan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3.- La persona seleccionada deberá acreditar, en el plazo máximo de diez días hábiles, el cumplimiento de los requisitos exigidos en la convocatoria y, en concreto, deberá presentar los siguientes:

8.3.- Hautatutako pertsonak gehienez ere hamar laneguneko epean deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du, eta, zehazki, honako hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Copia del documento nacional de identidad o documento equivalente acreditativo de la nacionalidad e identidad de la persona aspirante.

a) Izangaiaren nortasun-agiri nazionalaren edo nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidearen kopia.

b) Acreditación de encontrarse en situación de desempleo.

b) Langabezia – egoeran egotearen egiaztagiria.

c) Certificado médico de no padecer enfermedad ni defecto físico o psíquico que imposibilite el ejercicio de las funciones propias del cargo.

c) Ziurtagiri medikoa, karguari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

d) Copia auténtica de los títulos exigidos en la convocatoria o del resguardo de haber satisfecho los derechos para su obtención (titulación académica y, en su caso, acreditativa del nivel lingüístico).

d) Deialdian eskatutako tituluen kopia autentikoa edo titulu horiek lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiriarena (titulazio akademikoa eta, hala badagokio, hizkuntza-mailaren egiaztagiria).

e) Declaración jurada o solemne de no hallarse inhabilitada ni suspendida para el ejercicio de las funciones públicas y de no haber sido separada del servicio de una Administración Pública.

e) Zinpeko aitorpena edo adierazpen solemnea, non adieraziko baita ez dagoela ezgaituta edo ez dutela etenda funtzio publikoetan jarduteko eta ez dutela administrazio publiko baten zerbitzutik kendu.

f) Juramento o promesa de respetar el Régimen Foral de Navarra, de acatar la Constitución y las leyes y de cumplir fielmente las obligaciones del cargo.

f) Nafarroako Foru Eraentza errespetatzeko, Konstituzioari eta legeei men egiteko eta karguaren betebeharrak zintzotasunez betetzeko zin egitea edo hitzematea.

8.4. Si dentro del plazo fijado y salvo en casos de fuerza mayor debidamente justificados, las personas aspirantes propuestas no presentasen dichos documentos, no podrán ser nombradas, quedando anuladas todas las actuaciones sin perjuicio de la responsabilidad en que pudieran haber incurrido por falsedad en la solicitud inicial.

En ese caso, se cubrirá el puesto con la persona aspirante incluida inmediatamente a continuación, procediéndose en la forma señalada en los apartados anteriores.

8.4.- Baldin eta, ezarritako epearen barruan eta behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiek dokumentu horiek aurkezten ez badituzte, ezin izango dira izendatu, eta jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna.

Kasu horretan, jarraian dagoen izangaiarekin beteko da lanpostua, horretarako aurreko ataletan adierazitako moduan jardunez.

8.5.- Una vez aportada por la aspirante la documentación pertinente, el Presidente de SAV-AIZ, SL resolverá su nombramiento como trabajador/a fijo/a de la citada empresa, para desempeñar el puesto de trabajo de oficial administrativo.

8.5.- Izangaiak dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren, SAV-AIZ, SL-ko lehendakariak enpresa horretako langile finko gisa izendatuko du, ofizial administrariaren lanpostua betetzeko.

Dicho nombramiento será publicado en el Boletín Oficial de Navarra, teniendo en cuenta que dicha publicación surtirá los mismos efectos que la notificación en atención a lo establecido en el

Izendapen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, kontuan hartuta argitalpen horrek jakinarazpenaren ondorio berberak izango dituela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura

artículo 45 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

8.6. La persona nombrada deberá tomar posesión del puesto en el plazo máximo de un mes desde su nombramiento. Si en dicho plazo, salvo los supuestos de fuerza mayor suficientemente justificados, no tomaran posesión, perderán todos los derechos para la adquisición de la condición de persona trabajadora fija de SAV-AIZ, SL, procediéndose de la forma prevista en la Base 8.4.

Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera.

8.6.- Izendatutako pertsonak gehienez hilabeteko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, izendatzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, behar bezala justifikatutako salbuespeneko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez badira, SAV-AIZ SL enpresako langile finko izateko eskubide guztiak galduko dituzte, eta 8.4. oinarrian aurreikusitako moduan jokatuko da

**Base 9.- FUNCIONAMIENTO DE LA BOLSA DE SUSTITUCIÓN.**

**9. oinarria.- ORDEZKAPEN POLTSAREN FUNTZIONAMENDUA.**

9.1. La prioridad en las listas se establecerá en función de la mayor puntuación obtenida en las pruebas.

9.1. Zerrendetan, probetan lortutako puntuaziorik handienaren arabera ezarriko da lehentasuna.

9.2. Serán incluidas en las listas de aspirantes a la contratación temporal todas aquellas personas que obtengan, al menos, 30 puntos en la fase de oposición.

9.2. Oposizio - fasean gutxienez 30 puntu lortzen dituzten pertsona guztiak sartuko dira aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendetan.

9.3. La gestión de la lista se realizará conforme a lo dispuesto en las presentes bases y, en lo no previsto, por la Orden Foral 814/2010, de 31 de diciembre, por la que se aprueban las normas de gestión de la contratación temporal.

9.3. Zerrenda oinarri hauetan xedatutakoaren arabera kudeatuko da, eta, aurreikusi gabeko gaietan, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onartzen dituen abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera

9.4. Con el fin de facilitar su localización, las personas aspirantes deberán comunicar, al menos, un teléfono de contacto (sin perjuicio de que puedan comunicar, además, otros teléfonos) y una dirección de correo electrónico, información que deberán mantener permanentemente actualizada.

9.4. Hautagaiek, lokalizazioa errazte aldera, harremanetarako telefono bat eta posta elektronikoko helbide bat gutxienez komunikatu beharko dituzte, eta informazio hori etengabe eguneratuta eduki beharko dute; Nahi izanez gero, beste telefono batzuk ere jakinarazi ahal izango dituzte.

9.5. Cuando sea necesario proceder a la contratación temporal de un puesto de trabajo de forma ordinaria, se efectuará el llamamiento de la persona aspirante que en ese momento figure en el primer lugar de la lista constituida. Se realizarán dos intentos de localización mediante comunicación telefónica en dos días laborables

9.5. Eskuarki, lanpostu bat aldi baterako kontratatu behar denean, une horretan eratutako zerrendako lehen postuan dagoen izangaia deituko da. Bi lokalizazio -saiakera egingo dira telefono bidezko komunikazio bidez, ondoz ondoko bi lanegunetan, eta deialdi bakoitzaren data, ordua eta berezitasunak jasoko dira. Lehenengo

consecutivos, dejándose constancia de cada llamamiento con la fecha, hora y circunstancias del mismo. Simultáneamente al primer intento de localización por teléfono se enviará un correo electrónico dirigido a la dirección facilitada por el/la aspirante. Si no se obtiene la contestación en el plazo de 24 horas desde dicho envío electrónico ni se puede contactar telefónicamente, se procederá al llamamiento de la siguiente persona de la lista.

lokalizazio - saiakerarekin batera, mezu elektroniko bat bidaliko da izangaiak emandako helbidera. Bidalketa elektroniko hori egin eta 24 orduko epean erantzunik jasotzen ez bada, eta telefonoz harremanetan jarri ezin bada, zerrendako hurrengo pertsonari deituko zaio.

Tratándose de prestaciones de servicios urgentes, se hará un único intento de comunicación o aviso. En estos supuestos, la oferta habrá de ser aceptada o rechazada en una hora desde el mismo momento en que se realiza. En el caso de no lograrse el contacto se dará traslado de la oferta, sin más trámite, a la siguiente persona de la lista por orden de clasificación.

Premiazko zerbitzuak direnean, jakinarazteko edo ohartarazteko ahalegin bakarra egingo da. Kasu horietan, eskaintza ordubetean onartu edo baztertu beharko da, eskaintza egiten den unetik zenbatzen hasita. Hautagaiarekin harremanetan jartzerik lortu ezean, zerrendako hurrengo pertsonari emango zaio eskaintzaren berri, beste izapiderik gabe, sailkapen - ordenaren arabera.

Si puesta la entidad en contacto con alguna persona aspirante y realizada una oferta de contratación no contesta o renuncia a la misma, pasará a ocupar el último lugar de la lista, salvo que acredite encontrarse en alguno de los supuestos de renuncia por causa justificada, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 9.6.

Erakundea izangairen batekin harremanetan jarri eta kontratazio - eskaintza eginda hark erantzuten ez badu, edo eskaintzari uko egin badio, zerrendako azken posturaino pasatuko da, salbu eta justifikatutako arrazoiren batengatik uko egiten diola egiaztatzen badu, 9.6 atalean xedatutakoaren arabera.

Cuando una persona no pueda ser localizada, mantendrá su prioridad en la lista y se contactará con la siguiente o siguientes de la lista hasta que el puesto de trabajo ofertado sea cubierto.

Pertsona bat ezin bada aurkitu, zerrendan bere lehentasuna mantenduko da eta erakundea zerrendako hurrengoarekin edo hurrengoekin harremanetan jarriko da eskainitako lanpostua bete arte.

Efectuada esta designación, la entidad procederá a efectuar la contratación temporal de la persona aspirante propuesta.

Izendapen hori egin ondoren, erakundeak proposatutako izangaia aldi baterako kontratatuko du.

9.6. Se admitirán como causas justificadas de renuncia a la contratación del puesto de trabajo ofertado que no conllevan la alteración del orden de prelación en los listados de aspirantes a la contratación temporal, las siguientes:

a) Incapacidad temporal.

b) Permiso de maternidad o paternidad.

9.6. Eskainitako lanpostuaren kontratazioari uko egiteko arrazoi justifikatutzat hartuko dira eta, beraz, aldi baterako kontratazioko izangaien zerrendetako lehentasun-ordena aldatzea ez dute ekarriko ondoko arrazoi hauek:

a) Aldi baterako ezintasuna.

b) Amatasun- edo aitatasun - baimena.

c) Tener a su cuidado un hijo/a menor de tres años o un/a menor de tres años en acogimiento permanente o adoptivo.

d) Tener a su cuidado un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad que, por razones de edad, accidente o enfermedad, no pueda valerse por sí mismo.

e) Matrimonio propio o situación asimilada según la Ley 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables, si la fecha de inicio de la contratación administrativa ofertada está incluida dentro de los quince días naturales anteriores o siguientes a su constitución.

f) Tener en vigor una o varias contrataciones, en régimen administrativo o laboral, que den como resultado el 100% de la jornada, o un porcentaje que, de aceptar este puesto, superara dicho 100%.

g) Tener la condición de persona discapacitada debidamente reconocida y que las características de su discapacidad la hagan incompatible con las condiciones específicas del puesto de trabajo para el que se oferta el contrato.

h) Estar cursando algún curso presencial en el mismo horario del puesto ofertado.

9.7. Las personas aspirantes que se encuentren en alguna de las situaciones enumeradas, deberán acreditarlo documental y fehacientemente en el plazo de 7 días naturales desde que se les haya ofertado la contratación del puesto al que renuncian, en cuyo caso permanecerán en el mismo lugar que ocupan en la lista.

La no presentación en plazo de la documentación acreditativa de la causa de la renuncia justificada a la oferta de contratación, conllevará que se pase a ocupar el último lugar de la lista.

En los supuestos de renuncia justificada, deberán comunicar por escrito su disponibilidad para prestar servicios a partir de la fecha de finalización

c) Harrera iraunkorrean edo adopzioan hartutako hiru urtetik beherako seme-alaba bat edo hiru urtetik beherako bat zaintzea.

d) Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna duen senideren bat bere zaintzapean izatea, adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik ezin bada bere kabuz moldatu.

e) Norberaren ezkontza edo bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen araberako antzeko egoera, baldin eta eskainitako administrazio-kontratazioaren hasiera - data eratu aurreko edo ondorengo hamabost egun naturalen barruan badago.

f) Administrazio- edo lan-araubideko kontratazio bat edo gehiago indarrean izatea, eta lanaldiaren %100 ematen dutenak, edo, lanpostu hau onartuz gero, %100 horretatik gorako ehunekoa izatea.

g) Desgaitasuna behar bezala aitortua izatea eta desgaitasunaren ezaugarriak direla eta, kontratua eskaintzen den lanpostuaren berariazko baldintzekin bateraezina izatea.

h) Eskainitako lanpostuaren ordutegi bera duen ikastaro presentzialen bat egiten aritzea.

9.7. Zerrendatutako egoeraren batean dauden izangaiek agiri bidez eta modu frogagarrian egiaztatu beharko dute ematen den egoera hori, uko egiten dioten lanpostuaren kontratazioa eskaini zaienetik 7 egun naturaleko epean; kasu horretan, zerrendan duten leku berean jarraituko dute.

Kontratazio - eskaintzari uko egiteko arrazoi justifikatua egiaztatzen duen dokumentazioa epe barruan aurkezten ez bada, hautagai hori zerrendako azken postura pasako da.

Justifikatutako uko - egiteen kasuan, idatziz jakinarazi beharko dute uko egitea justifikatu zuen egoera amaitzen den egunetik aurrera zerbitzuak

de la situación que justificó la renuncia. Mientras no se produzca esta comunicación no se les ofertará ningún puesto de trabajo.

emateko prest daudela. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, ez zaie lanposturik eskainiko.

9.8. Serán excluidas de la lista las personas que incurran en los siguientes supuestos:

a) No suscripción del correspondiente contrato por causa imputable a la persona aspirante, una vez aceptada la oferta de contratación.

b) Por renuncia al contrato suscrito o la no aceptación de un contrato, salvo que sea por motivo de la suscripción de otro contrato con otra entidad pública o privada que deberá ser acreditado documental y fehacientemente en el plazo de 7 días naturales a la formalización de la renuncia. En este supuesto la persona aspirante pasará a ocupar el último lugar de la lista.

c) Abandono del puesto de trabajo.

d) No superación del periodo de prueba, en caso de que ésta se haya previsto en el respectivo contrato.

e) Imposibilidad reiterada, durante un periodo de un año, de contactar con la persona aspirante con motivo de llamamientos para la contratación, en los teléfonos o direcciones de correo electrónico facilitados por el mismo.

9.8. Zerrendatik kanpo geratuko dira honako kasu hauetan dauden pertsonak:

a) Kontratazio-eskaintza onartu ondoren, dagokion kontratua ez sinatzea, izangaiari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.

b) Sinatutako kontratuari uko egiteagatik edo eskainitako kontratu bat ez onartzeagatik, baldin eta beste erakunde publiko edo pribatu batekin beste kontratu bat sinatzeagatik ez bada; kasu horretan, agiri bidez eta modu frogagarrian egiaztatu beharko da, ukoa formalizatzen denetik 7 egun naturaleko epean. Kasu horretan, izangaia zerrendako azken postuan geratuko da.

c) Lanpostua uztea.

d) Probaldia ez gainditzea, baldin eta aukera hau dagokion kontratuan aurreikusi bada.

e) Kontratazioko deiak direla eta, urtebetean behin eta berriro hautagaiarekin harremanetan jarri ezin bada, hark emandako telefono-zenbakietan edo helbide elektronikoetan.

En Puente la Reina, a 23 de diciembre de 2025.

Garesen, 2025eko abenduaren 23an.